

Data: Ekainak 7

Ordua: 10:00etan

Lekua: Sestaoko Udaletxean

### GAI-ZERRENDA ORDEN DEL DÍA

9:55 **Parte-hartzaileen harrera.** Recepción de los asistentes.

10:00 **Parte-hartzaile guztien aurkezpena eta jardunaldiaren aurkezpena.** Presentación de todas las partes y presentación de la dinámica de la jornada. (Ortzadar)

10:05 **Udal Instituzioaren partetik ongi etorria.** Bienvenida de la institución municipal. (Alkatea)

10:10 **Ikastetxeek aurten egindako lanen aurkezpena eta adostutako konpromiso, proposamen eta ekintza eraldatzailearen ekarpena.** Presentación del trabajo realizado por los centros y presentación de los compromisos adoptados y las propuestas y acción transformadora acordadas. (Ikastetxeak)

10:45 **Udal ordezkarien erantzuna egindako proposamenei eta ekintza eraldatzaileari.** Respuesta de los representantes municipales a las propuestas y la acción transformadora realizada. (Udal ordezkariak)

11:00 **Alkatearen agurra, instituzioaren konpromisoa eta Eskolako Agenda 2030eko arduradunaren deialdia hurrengo ikasturterako.** Despedida de la alcaldesa, compromisos de la institución y emplazamiento de cara al curso que viene por el responsable de la Agenda 2030 Escolar (Udal ordezkariak)

---

\*Ordu-tegiak orientagarriak dira.

### IKASTETXEEN PARTE HARTZEKO TXANDA

Ikastetxe bakoitzak foroan hitz egingo duten 5 ikasleak aukeratu beharko ditu (hauek dira mahaian jesarriko direnak, aforoagatik).

Ikastetxe bakoitzak, hurrengo zerrendan zehazten den ordena jarraituz, urtean zehar egindako ekintzak power point aurkezpen batean oinarrituz azalduko ditu.

Ikasleek, haien power pointa proiektatzen den bitartean esan behar dutena ekarri ezazue mesedez prestatuta, hau da, beharrezkoa baldin bada testua idatzirik eduki dezatela ikasleek eta bakoitzak zer esan behar duen ondo lotuta.

Aurkezpenak ordena honetan joango dira:

- SATURNINO DE LA PEÑA
- BEGOÑAKO ANDRA MARI
- ANGELA FIGUERA
- AMOR MISERICORDIOSO

Sarrera eta gero, ikasleek konpromiso, proposamenak eta ekintza eraldatzailea irakurriko dituzte mahaian jesarrita dauden ikasleek (aukeratu nork/nortzuk irakurriko dituzten).

#### KONPROMISOAK

##### **SATURNINO DE LA PEÑA**

1. *Herriko berdeguneak eta gure ingurunea zainduko ditugu: ez dugu lurrera zaborrik botako eta ezagunen bat ikusten badugu zaborra lurrera botatzen ez egiteko esango diogu.*

##### **BEGOÑAKO ANDRA MARI**

2. *Erabiltzen dugun ura kantitatea murriztuko dugu, eta elektrizitatea ez dugu xahutuko.*

##### **ÁNGELA FIGUERA**

3. *Ahal den guztietan garraio publikoa erabiliko dugu, eta familiei esango diegu kotxea gutxiago erabiltzeko.*
4. *Landareak eta loreak landatuko ditugu gure etxeetan.*

#### AMOR MISERICORDIOSO

5. *Gutxiago kontsumitzen saiatuko gara, eta erabiltzen ez dugun arropa berrerabiliko dugu: behar duen norbaiti emango diogu edo edukiontzi zurian botako dugu, adibidez.*

#### PROPOSAMENAK

##### SATURNINO DE LA PEÑA

1. *Mota guztietako edukiontzi gehiago jartzea, eta batzuen kokapena aldatu (adibidez, espaloi gainean baldin badaude)*
2. *Udalak aztertzea txakurrentzako gune gehiago jartzeko beharra.*

##### BEGOÑAKO ANDRA MARI

3. *Udalak ingurumenaren aldeko ekintza gehiago antolatzea. Adibidez, zuhaitz eguna.*
4. *Sestaoko espaloiak zabaltzea (adibidez, Dr. Ferran kalean, Alameda las Llanas, Amor Misericordioso ikastetxearen inguruan...) eta hauen irisgarritasuna hobetu.*

##### ÁNGELA FIGUERA

5. *Alokatzeko bizikletak jarri, guztiok bizikletaz ibiltzeko aukera izateko eta bidegorria herri guztian zehar zabaltzea.*
6. *Zuhaitzen txorkoak kendu eta berdeguneak handitu zuhaitzak eta beste landare batzuk landatuz.*

##### AMOR MISERICORDIOSO

7. *Herri osoko segurtasuna hobetzea: Adibidez, askotan eskailera mekanikoak geldirik daude, Udalak azter dezala nola konpon daitekeen hau.*
8. *Udalak energia berriztagarri gehiago erabiltzea, bai eraikin publikoetan bai herrian zehar.*

Noemik azalpen bat egingo du. Ondoren, SATURNINO DE LA PEÑA Institutuko ikasle batek hurrengo ikasturtean ikasleek udalaren laguntzarekin aurrera eramango duten ekintza irakurriko du.

**EKINTZA SATURNINO DE LA PEÑA**

*Kirol txapelketa bat antolatzea, eta lortutako dirua Sestaon zuhaitzak landatzeko izango da.*

Konpromiso, proposamenak eta ekintza irakurri ostean udal ordezkariak ikasleei erantzun eta ondoren ekitaldiari amaiera emango diote.